



Nerabeak Euskadin

Euren egoeraren
pertzepzioa eta balioak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Haur, Nerabe eta Gazteen
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de
la Infancia, Adolescencia
y Juventud

Nerabeak Euskadin. Euren egoeraren pertzepzioa eta balioak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



Haur, Nerabe eta Gazteen
Euskal Behatokia

Observatorio Vasco de
la Infancia, Adolescencia
y Juventud

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2026

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoa aurki daiteke: <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaraldia: 1.a, 2026ko otsaila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Ongizatea, Gazteria eta Erronka Demografikoaren saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea:

Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia

Diseinua eta maketazioa:

Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatokia

Azala:

D.^a Casilda Komunikazio Agentzia

Oharra: Argitalpen honen gaztelaniako bertsioa ere eskuragarri dago



Dokumentu honen edukiak, oraingo edizioan, Creative Commons-en lizentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 4.0 Unported (informazio gehiago: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.eu>)

AURKIBIDEA

SARRERA ETA METODOLOGIA	7
DATU ESANGURATSUAK	10
I. BIZITZAREKIKO POZTASUNA	15
Norberaren egoeraren balorazioa	16
Bizitzaren alderdi garrantzitsuenak 2025ean	17
Gogobetetasun handien sortarazten duten bizitzaren alderdiak 2025ean	27
Bizitzaren alderdien balantzea 2025ean.....	37
Gurasoak zure adinekoak zirenean baino hobeto bizi al zara?	38
II. BALIOAK ETA SINEMENAK	39
Sexu bereko pertsonen arteko ezkontzei emandako sostengua.....	40
Abortuari emandako sostengua	41
Eutanasiari emandako sostengua.....	42
Pertsona atzerritar gehiegi izatearen pertzepzioa	43
Lan-kontratua duten immigranteei bakarrik erraztu sarrera	44
Klima-aldaketa: ez da giza ekintzaren ondorio	45
Klima-aldaketa: neurri zorrotzagoak eskatzea	46
Erljio-gaietan norbere burua ez-sinestun gisa definitzea.....	47
III. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA	48
Auzotik gauez bakarrik ibiltzeko beldurra	49
Genero-indarkeria asmakizun ideologikoa al da?.....	50
Berdintasuna sustatzeak orain gizonak baztertzea ekarri al du?.....	51
Diskriminazio positiboko neurri gehiago eskatzea	52
IV. PARTE-HARTZE SOZIALA	53
Boluntario-lanak betetzea.....	54
Politikarekiko interesa.....	55
Demokrazia gobernatzeko modurik onena al da?.....	56
Herritarrek parte hartzeko bide gehiago eskatzea.....	57
V. SARE SOZIALAK	58
Sare sozialek lagunak egitea errazten al dute?	59
Sare sozialek azaleko harremanak al dakartzate?	60
Sare sozialek gehiago isolatzen al zaituzte?	61

Sare sozialetan laguntza emozionala aurkitzea erraza al da?.....	62
Sare sozialak erabiltzeak osasun mentalari eragiten al dio?.....	63
Sare sozialak erabiltzeak errendimendu akademikoari eragiten al dio?.....	64
Sare sozialen arriskuak puztu egiten al dira?	65





**SARRERA ETA
METODOLOGIA**

Nerabearoa giza garapenaren funtsezko etapa bat da, aldaketa fisiko, emozional, sozial eta kognitibo sakonek markatua. Funtsezko fasea da, fase horretan definitzen baita pertsona heldu gisa izango garenaren zati handi bat: gure nortasuna, harremanak, autonomia, balioak eta bizi-proiektua.

Txosten honek nerabearoaren inguruan Euskadin dauden hainbat beharrian estrategikori eta ezagutzaren kudeaketari erantzuten die. Arrazoi nagusien artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Euskadiko nerabeen errealitatea zehaztasunez ezagutzea. Funtsezkoa da nerabeen bizitzari, iritziei eta beharrei buruzko informazio eguneratua eta fidagarria izatea, beraien errealitateari erantzungo dioten politika publikoak bideratzeko. Txosten honek beren egoera pertsonala, lehentasunak eta kezkek ulertzeko aukera ematen du.
- 25 urteko inkesten ondarea aprobetxatzea eta eguneratzea. Mende laurden batez, Gazteen Euskal Behatokiak 15 eta 17 urte bitarteko biztanleei buruzko informazio baliotsua bildu du. Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatoki berriak segida historiko hori berreskuratu eta eguneratu du, joerak eta elementu berriak hautematen laguntzen duen luzetarako ikuspegia eskaintzeko.
- Politika publikoak diseinatzeko eta ebaluatzeko ebidentziak izatea. Datu egiaztatuak izatea ezinbestekoa da hurrengo eremu hauetan esku-hartze eraginkorrako diseinatzeko: osasun mentalean, hezkuntzan, berdintasunean, elkarbizitzan, herritarren parte-hartzean edo ongizate orokorrean. Erakundeen erabakien oinarri izateko funtsezko informazioa ematen du txostenak.
- Nerabeen ahotsa gizarte-gai garrantzitsuetan txertatzea. Txostenak nerabeek berdintasunean, immigrazioan, erlijioan, klima-aldaketan edo politikan duten jarrera jasotzen du. Haien iritzia entzutea funtsezkoa da sortzen ari diren balioak identifikatzeko, eztabaida sozialak aurreratzeko eta haien begirada kontuan hartzen duten politikak bultzatzeko.
- Nesken eta mutilen arteko ezberdintasun esanguratsuak detektatzea. Bereizketa horrek funtsezko informazioa ematen du neska eta mutil nerabeen desberdintasunei, pertzepzio berezietuei eta premia espezifikoiei buruz.
- Erakundeentzat, profesionalentzat eta herritarrentzat erreferentziatzeko baliabide bat eskaintzea. Txostena tresna erabilgarria eta eskuragarria da administrazioentzat, ikastetxeentzat, gizarte-erakundeentzat, langile teknikoentzat eta Euskadiko nerabeen errealitatea hobeto ulertzeko interesa duten herritarrentzat.

Horretarako, Haur, Nerabe eta Gazteen Euskal Behatoki berriak txosten honetan aztertzen ditu azken 25 urteetan Gazteen Euskal Behatokiak egindako inkestei 15 eta 17 urte bitarteko pertsonak emandako erantzunak.

Zehazkiago, nerabeek beren egoera pertsonalari buruz, oro har, eta beren bizitzako hainbat alderdiri buruz duten iritziari buruzko datuak ematen dira, bai eta politika, erlijioa, immigrazioa, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, klima-aldaketa edo sare sozialen erabilera bezalako gai sozialei buruz duten posizionamenduari buruzkoak ere.

15-17 urteko nerabeei egindako inkesten kopurua aldatu egiten da azterlan batetik bestera, baina, nolana ere, ez dute aukerarik ahalbidetzen emakume eta gizonen arteko bereizketaz harago estatistikoki adierazgarriak diren datuak ematen dituzten aldagaien arabera bereizketak egiteko.

2000. eta 2020. urteen artean egindako inkestak etxeakoak edo telefono bidezkoak izan ziren; orduan aurrera, online norberak betetzearen metodologia eta telefono bidezko inkesta konbinatu dira.

Kasu guztietan datuak sexuaren, adin-taldearen eta bizi diren lurralde historikoaren arabera haztatu egin dira Euskadiko gazteen banaketara egokitzeko.

Lagin-errorea % 6 ingurukoa da galdera guztietan, % 95eko konfiantza-mailarekin eta lagina guztiz ausazkoa izatearen hipotesi teorikoa oinarri hartuta ($p=q=0,5$).





**DATU
ESANGURATSUAK**

Atal honetan, Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen iritzietatik lortutako datu esanguratsuenak biltzen dira. Irakurketa errazteko atalka bereizita daude.

Bizitzarekiko poztasuna

Euskadiko nerabeek **balorazio ona** egiten dute **beren egoera pertsonalaz**. 2025ean, **10etik 7,7 puntu** eman zizkioten batez beste. Nesken balorazioa mutilena baino pixka bat altuagoa da, 8,0 eta 7,4ko batez besteko puntuazioekin, hurrenez hurren.

Familia, osasuna (fisikoa eta mentala), ikasketak, lagunak eta astialdia dira bizitzako arlorik garrantzitsuenak. 2025ean, guztiek dute 8tik gorako garrantzia 0-10 eskalan.

Irudi fisikoak, batez beste, garrantzi gutxiago du (2025ean 7,6), baina gehien hazi den alderdia da, 2025an nerabeek ematen dioten garrantzia ia puntu bat handitu baita 2017ean ematen ziotenarekiko.

Bizi-alderdi horiekiko gogobetetasunari dagokionez, **nerabeek familiarekiko, lagunekiko eta osasun fisikoarekiko sentitzen dute gogobetetze-maila altuena 2025ean** (8tik gorako puntuazioekin). Aldiz, gogobetetze-maila baxuena harreman sentimental edota sexuarekiko sentitzen dute. Izan ere, harreman sentimental edota sexuarekiko gogobetetasuna bi puntu baino gehiago jaitzi da 2014ko datuekin alderatuta.

2025ean, emandako garrantziaren eta aitortutako gogobetetasunaren arteko alderik handiena **harreman sentimentalen edota sexualen** arloan ematen da. Desoreka hori azal daiteke, hein batean, harreman horiek gero eta garrantzi handiagoa hartzen dutelako nerabezaroen; garai horretan, espektatiba afektibo eta sexualak handiak izaten dira, eta esperientzia, egonkortasun emozionala eta harremanetarako trebetasunak, berriz, oraindik sendotze-prozesuan daude.

Sexuaren arabera bereizitako analisiak patroia desberdinak erakusten ditu. **Nesken** artean, balantzerik negatiboena **osasun mentalean** dago, ziur asko presio sozial handiagoarekin, norberaren exigentzia handiagoarekin eta ondoez emozionala adierazi eta onartzeko joera nabarmenagoarekin lotuta. **Mutilen** artean, aldiz, alderik handiena hilean erabilgarri duten **diruari** dagokio, eta hori lotuta egon daiteke autonomia ekonomikoaren itxaropenekin eta mutil askok gizarte- eta aisialdi-jardueretarako baliabide propioak izateari ematen dioten garrantziarekin.

Gurasoek beren adinean bizi zuten egoerarekin alderatuta, **hamarretik seik (% 61,2k) uste dute gurasoek baino egoera hobea dutela**. Gehiengoan izan arren, 2025ean beren gurasoak beren adin berean baino hobeto daudela uste duten 15-17 urteko nerabeen ehunekoa 2008an hasitako serieko txikiena da.

Balioak eta sinesmenak

Erljioei dagokionez, Euskadiko nerabeen erdiak baino gehiagok sinesgabe gisa definitzen du bere burua (% 58,7k 2024an). Hogeitertean, 2004tik 2024ra, ateak edo agnostikoak direla adierazi duten 15-17 urteko pertsonen ehunekoa hamar puntu baino gehiago igo da. Ez da alde nabarmenik ikusten sinesgabeak diren neska-mutilen kopuruetan.

Euskadiko nerabeen % 80 baino gehiago **sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren (% 88,4), eutanasiaren (% 86,3) eta abortuaren (% 83,7) alde** daude. Hiru kasuetan, babesa handiagoa da nesken artean mutilen artean baino (nesken artean % 90 baino gehiagoko ehunekoekin).

Gazte gehienek uste dute **klima-aldaketa giza ekintzaren ondorio dela**, eta ez dela besterik gabe naturaren aldaketa ziklikoa (% 78,8). Gutxiengoa izan arren, mutikoen % 18,9 eta nesken % 9,1 bat datoz klima-aldaketa aldian-aldian gertatzen den eta giza jardueraren ondorio ez den natura-aldaketa delako ideiarekin.

Hamar nerabetik bederatzik neurri zorrotzagoak eskatzen dituzte klima-aldaketa geldiarazteko (% 89,9). Nesken artean ehunekoa zertxobait handiagoa da mutilen artean baino.

15 eta 17 urte bitarteko lau pertsonatik batek uste du **atzerritar** gehiegi dagoela **Euskadin** (% 28,5). Eta ia erdiek (% 48,2) lan-kontratua dutenei soilik erraztuko liekete sarrera. 2020tik 2024ra hazi egin dira bai atzerritar gehiegi dagoelako pertzepzioa, bai sarrera lan-kontratua dutenei soilik erraztearen ideia.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Berdintasunak eskubide eta betebeharrak berdina izatea dakar, baita aukera-berdintasuna dagoela hautematea ere. Bizipenak eta pertzepzioak oso ezberdinak izan daitezke gizon eta emakumeen artean eta horren lekuko da gaez bakarrik ibiltzearen beldurra neurtzen duen adierazlea.

Nerabeen ia erdiek (% 47,1) diote beldurra diotela gaez beren herrian edo auzoan bakarrik ibiltzeari, baina batez besteko horrek oso errealitate desberdinak biltzen ditu mutilen eta nesken artean: azken horien artean, hirutik bik diote beldurra sentitzen dutela (% 66,4); mutilen artean ere ehuneko nabarmena da (% 29,1), baina nesken artean baino askoz txikiagoa.

Bestalde, gaur egun, zenbait korrante ideologikok adierazten dute genero-indarkeriarik ez dagoela eta asmakizun ideologikoa dela. Emakumeen berdintasunaren sustapenean urrunegi heldu dela eta orain gizonak diskriminatzen ari direla diotenak ere badira. Nerabeek bi ideia horiek erabat arbuatzen dituzte, nahiz eta mutilen artean nesken artean baino handiagoa izan ideia horien gaineko adostasun-ehunekoa. **15 eta 17 urte bitarteko mutilen % 14,6k uste du genero-indarkeriarik ez dela existitzen** (nesken % 2,9ren aldean), eta **% 42,0k uste du urrunegi iritsi dela emakumeen berdintasuna sustatzeari dagokionean, eta orain gizonak diskriminatzen direla** (nesken kasuan % 14,6k).

Lau nerabetik hiruk adierazi dute **emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekintza gehiago jarri beharko liratekeela martxan (% 76,1)**. Neskek mutilek baino gehiago eskatzen dituzte diskriminazio positiboko ekintzak (% 84,0 eta % 68,5, hurrenez hurren).

Ikusi dugunez, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko planteamenduetan, nesken eta mutil nerabeen artean iritzi-, pertzepzio- eta eskaera-alde handiak daude.

Parte-hartze soziala

Gizartean parte hartzeko modu eraginkor bat **boluntario-lanak** egitea da. Gaur egun, nesken eta mutil nerabeen % 14,3k egiten dituzte. Ehuneko hori nabarmen handitu da 2012koarekin alderatuta (% 4,4). Neskek mutilek baino gehiago parte hartzen dute boluntario-lanetan (% 17,7 eta % 11,2, hurrenez hurren, 2025ean).

Bestalde, **nerabeen ia erdiek diote politikarekiko interes handia edo nahikoa dutela (2024an, % 48,7k)**. Politikarekiko interesa etengabe hazi da 2008tik, urte hartan % 11,1ek bakarrik adierazi baitzuen interesa zuela. Mutilek neskek baino interes handixeagoa dute (% 50,9 eta % 46,3, hurrenez hurren).

Lau nerabetik hiruk (% 75,9) uste dute demokrazia dela gobernatzeko modurik onena. Mutilek gehiago partekatzen dute ideia hori neskek baino (% 79,7 eta % 72,0, hurrenez hurren). Horrek, ordea, ez du esan nahi neskak gobernu-modu gisa demokraziaren aurka gehiago egiten dutenik, baizik eta nesken artean galderaren erantzun ezaren ehuneko handiagoa dagoela.

Antzeko ehunekoak (% 76,9) uste du **mekanismoak ezarri beharko liratekeela herritarrek erabaki publikoetan modu eraginkorragoan parte har dezaten** (adibidez, erreferendum lotesleak, etab.). Berriro ere, parte hartzeko mekanismoen eskaera-ehunekoak handiagoak dira mutilen artean nesken artean baino (% 82,3 eta % 71,1, hurrenez hurren), baina horrek ez du esan nahi neskak herritarren parte-hartzerako mekanismoak ezartzearen aurka daudenik, baizik eta nesken ehuneko handi batek ez duela gai horri buruzko iritzirik ematen.

Oro har, neskek mutilek baino parte-hartze sozial handiagoa duten arren (boluntarioen datuei erreparatu), gai politikoetan mutilek baino interes gutxiago dutela hautematen da, eta gehiago jotzen dute beren iritzia ez ematera horrelako gaiez galdetzen zaienean.

Sare sozialei buruzko iritzia

Gaur egun ezin da nerabeei buruz hitz egin sare sozialak kontuan hartu gabe. Txosten honetan 15 eta 17 urte bitarteko neska eta mutilek sare sozialen erabilerak ekar ditzakeen onura eta kalteei buruz dituzten iritziak bildu ditugu.

Nerabeen erdiek baino gehixeagok uste dute **sare sozialek lagunak egitea erraztu dutela (% 58,2)**. Mutilek gehiago partekatzen dute ideia hori neskek baino (% 61,6 eta % 55,2, hurrenez hurren).

Baina gehienek uste dute **Internetek eta sare sozialek harreman sozialak azalekoagoak izatea eragin dutela (% 78,9)**. Neskak mutilak baino irmoago agertzen dira planteamendu horrekin (akordioa nesken % 84,1ekoa da, eta mutilen % 73,8koa).

Gainera, hamar nerabetik zazpik uste dute **Internet eta sare sozialak erabiltzeak gehiago isolatzen zaituela (% 70,8)**. Kasu honetan ez da iritzi desberdintasunik nabarmentzen neska eta mutilen artean.

Gutxiengoa dira edozein arazoren aurrean sare sozialetan laguntza emozionala aurkitzea erraza dela uste duten nerabeak (% 33,8), baita sare sozialek izan ditzaketen arriskuak asko puzten direla diotenak ere (% 30,3). Bi ideiekin ados dauden mutilen ehunekoa neskena baino handixeagoa da, baina, hala ere, gutxiengoa izaten jarraitzen du.

15 eta 17 urte bitarteko neska-mutil gehienek uste dute **sare sozialen erabilerak eragin negatiboa duela ikasketetako errendimenduan (% 81,5) eta baita osasun mentalean ere (% 76,6)**. Mutilek neskek baino gehiago adierazi dute sare sozialen erabilerak eragin negatiboa duela errendimendu akademikoan (mutilen % 84,9 eta nesken % 77,6), eta ez dago alderik sexuaren arabera osasun mentalean duen eraginari dagokionean.


Beraz, ondoriozta dezakegu Euskadiko nerabe gehienak jabetzen direla sare sozialek dituzten arriskuez, batez ere neskek.





I. BIZITZAREKIKO POZTASUNA

NORBERAREN EGOERAREN BALORAZIOA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren egoera pertsonalari ematen dioten balorazioaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Euskadiko nerabeek oso balorazio ona egiten dute beren egoera pertsonalaz (7,7 puntu ematen dizkiote, 0-10 eskalan).

Aztertutako aldian, egoera pertsonalaren balorazioa 2021eko eta 2022ko 7,4aren 2017ko 8,1aren artekoa izan da. 2025ean jasotako balorazioa azken hamabi urteetako batez bestekoaren oso antzekoa da (7,8).

Neskek beren egoera pertsonalari ematen dioten kalifikazioa mutilek ematen dutena baino pixka bat altuagoa da (8,0 eta 7,4, hurrenez hurren).

BIZITZAREN ALDERDI GARRANTZITSUENAK 2025EAN



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren bizitzako hainbat alderdiri ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioak, 0tik 10erako eskalan.



Iruzkina

Euskadiko nerabeen bizitzan garrantzitsuena familia da, 2025ean proposatutako bizi-alderdi bakoitzari emandako puntuazioen arabera.


Familiari ematen zaion garrantzia 8,9koa da 0-10 eskalan. 8. mailatik gora, beste alderdi batzuk ere agertzen dira, garrantziaren arabera honako hauek: osasun mentala, ikasketak, osasun fisikoa, lagunak eta denbora librea.

Diruak eta irudi fisikoak 7tik 8ra arteko garrantzia dute.

Galdetu direnen artean, garrantzi gutxien ematen dioten alderdia harreman sentimentalak edota sexualak dira (6,1).

Sexuaren arabera ez da alderik ikusten.

FAMILIARI EMANDAKO GARRANTZIA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek familiari ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Euskadiko nerabeek garrantzi handia ematen diote familiari (8,9 puntu 0-10 arteko eskalan).

Hala ere, familiari emandako garrantzia jaitsi egin da, aurreko urteetan emandakoarekin konparatuz gero, eta 2014-2025 aldiko batez bestekoaren azpitik dago (9,2 da batez besteko hori). Orain 9aren azpitik dago, 2021ean eta 2022an gertatu zen bezala.

Ez dago alde nabarmenik neskek eta mutilek familiari ematen dioten garrantziari dagokionez; 2025ean neskek 9,0 puntuko garrantzia ematen diote eta mutilek 8,8 puntukoa.

OSASUN MENTALARI EMANDAKO GARRANTZIA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek osasun mentalari ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Euskadiko nerabeek 0tik 10era 8,8 punturekin neurtzen dute osasun mentalari ematen dioten garrantzia.

Osasun mentalari emandako garrantzia azken hiru urteetan bakarrik neurtu da eta puntuazioek gorantz egin dute urte batetik bestera. Hori dela eta, 2025ean jasotako puntuazioa 2023-2025 aldiko batez bestekoaren gainetik dago.

Neskek eta mutilek osasun mentalari ematen dioten garrantzia ia berdina da: 2025ean neskek 8,9 puntu eman dizkiote eta mutilek 8,8.

IKASKETEI ETA PRESTAKUNTZARI EMANDAKO GARRANTZIA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek ikasketei eta prestakuntzari ematen dieten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Euskadiko nerabeek 8,7 puntuko garrantzia ematen diete ikasketei eta formakuntzari 0 eta 10 arteko eskalan.

Ikasketei ematen dieten garrantzia oso egonkorra da eta azken hamabi urte hauetan 8,5 eta 8,7 artean egon da.

Neskek mutilek baino garrantzi handiagoa ematen diete ikasketei; 2025ean, neskek 9,1 puntuko garrantzia eman diete eta mutilek 8,3koa, batez beste.

OSASUN FISIKOARI EMANDAKO GARRANTZIA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek osasun fisikoari ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Euskadiko nerabeek osasun fisikoari ematen dioten garrantzia 8,6 puntukoa da 2025ean, eta 2014-2025 aldiko batez bestekoaren azpitik dago.

Hala ere, kontuan hartu behar da 2023ra arte osasun orokorrari buruz galdetzen zela eta ordutik aurrera soilik bereizten dira osasun fisikoa eta mentala. Horregatik, 2023a baino lehenagoko puntuazioek, altuagoak zirenak, osasunaren ikuspegi orokorrago bati egiten diezaiokeste erreferentzia.

2025ean, neskek osasun fisikoari ematen dioten garrantzia mutilek emandakoa baino altuxeagoa da (8,8 eta 8,5 puntu, hurrenez hurren).

LAGUNEI EMANDAKO GARRANTZIA

**Definizioa**

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek lagunei ematen dieten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.

**Iruzkina**

Euskadiko nerabeek lagunei emandako garrantzia 8,6 puntukoa da 0-10 eskalan.

2025ean emandako puntuazioa azken hamabi urteetan jasotako batez bestekoaren antzekoa da (8,8).

Berriro ere, nesken batez besteko puntuazioa (8,7, 2025ean) mutilek emandakoa baino altuxeagoa da (8,4).

AISIALDIARI EMANDAKO GARRANTZIA

**Definizioa**

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek aisialdiari ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.


**Iruzkina**

2025ean, Euskadiko nerabeek 8,2 puntuko garrantzia ematen diote aisialdiari 0-10 arteko eskalan.

Puntuazio hori aztertutako aldi osoan jasotakoaren antzekoa da, 2014 eta 2025 artean aisialdiari emandako garrantzia 8,1 eta 8,5 balioen artean egon baita beti.

Bizitzaren beste alderdi batzuetan ez bezala, aisialdiaren kasuan mutilek neskek baino garrantzi handiagoa ematen diote (8,4 eta 8,0, hurrenez hurren).

DIRUARI EMANDAKO GARRANTZIA

**Definizioa**

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek diruari ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.


**Iruzkina**

Euskadiko nerabeek, 0tik 10era, 7,9 puntuko garrantzia ematen diote diruari.

2025ean emandako puntuazio hori azken urteetako batez bestekoaren oso antzekoa da (7,7).

Mutilek eta neskek puntuazio berdina ematen diote diruaren garrantziari (7,9 batzuek eta besteek).

ITXURA FISIKOARI EMANDAKO GARRANTZIA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek itxura fisikoari ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

2025ean Euskadiko nerabeek 7,6 punturekin neurtzen dute itxura fisikoari ematen dioten garrantzia.

Itxura fisikoaren garrantzia 2017an hasi zen neurtzen, baina 2020tik aurrera izan zuen gorakada nabarmena eta, orduetik, nahiko egonkor mantentzen da.

Neskek mutilek baino garrantzi handiagoa ematen diote irudi fisikoari (7,8 neskek eta 7,3 mutilek).

HARREMAN SENTIMENTAL EDOTA SEXUALEI EMANDAKO GARRANTZIA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek harreman sentimental edota sexualei ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.





Iruzkina

Harreman sentimental edota sexuak 10etik 6,1 puntuko garrantzia dute Euskadiko nerabeen artean.

2020tik harreman sentimentalei edota sexualei emandako garrantzia 7tik behera jaitsi da, eta 2025ean serieko puntuazio baxuena erregistratu da.

Mutilek neskek baino garrantzi handiagoa ematen diete harreman sentimental edota sexualei (6,6; neskek, ordea, 5,5).

GOGOBETETASUN HANDIEN SORTARAZTEN DUTEN BIZITZAREN ALDERDIAK 2025EAN



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren bizitzako hainbat alderdirekiko sentitzen duten gogobetetze-mailen batez besteko puntuazioak, 0tik 10erako eskalan.



Iruzkina


Familia da 15 eta 17 urte bitarteko Euskadiko nerabeek gogobetetze-maila handiena sentitzen duten bizitza-esparrua. 2025ean, familiarekiko gogobetetasuna 8,8 puntuekin baloratu dute 0-10 eskalan.

Ondoren, gogobetetasunaren hurrenkeran, lagunak eta osasun fisikoa datoz, 8tik gorako puntuazioekin. Horien atzetik daude osasun mentala, ikasketak, aisialdia, itxura fisikoa eta daukaten dirua, 7tik gorako puntuazioekin.

Harreman sentimental edota sexualak dira asebetetze-maila txikiena sortzen dien bizi-alderdia, gainditze mailara ozta-ozta iristen baitira (hamarretik 5,1 puntu bakarrik jaso dituzte).

Bizitzaren hainbat alderdirekiko gogobetetasunaren batez besteko puntuazioa oso antzekoa da mutilen (7,6) eta nesken (7,5) artean.

FAMILIAREKIKO GOGOBETETZE-MAILA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren familiarekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Euskadiko nerabeak oso pozik daude beren familiarekin. 0tik 10era, familiarekiko gogobetetze-mailak 8,8 puntu jaso ditu 2025ean.

2025eko puntuazioa 2014-2025 aldiko batez bestekoaren oso antzekoa da (8,9).

Familiarekiko gogobetetze-maila berdina da mutilen eta nesken artean (8,8 kasu bietan).

LAGUNEKIKO GOGOBETETZE-MAILA

**Definizioa**


Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren lagunekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.

**Iruzkina**

Euskadiko nerabeek beren adiskideekiko sentitzen duten gogobetetze-maila handitu egin da pandemia osteko aldiarekin (2021-2024) alderatuta, eta 2025ean 8,4koa da 0-10 eskalan.

Neskak mutilak baino pixka bat gusturago ageri dira (8,5eko eta 8,2ko puntuazioak eman dituzte, hurrenez hurren, 2025ean).

OSASUN FISIKOAREKIKO GOGOBETETZE-MAILA

**Definizioa**


Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren osasun fisikoarekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.

**Iruzkina**

Euskadiko nerabeak pozik daude beren osasun fisikoarekin (10etik 8,1 puntu 2025ean), baina ez dira iristen 2022ra arteko asebetetze-mailara. Epealdiko batez bestekoa handiagoa da 2025ean erregistratutako gogobetetasuna baino.

Osasun fisikoarekiko gogobetetasuna oso antzekoa da mutilen eta nesken artean; mutilek 8,2ko puntuazioa ematen diote beren gogobetetze-mailari, eta neskek, berriz, 8,0koa.

OSASUN MENTALAREKIKO GOGOBETETZE-MAILA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren osasun mentalarekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Euskadiko nerabeek beren osasun mentalarekiko duten asebetetze-maila handitu egin da azken urteotan, eta 2025ean 10etik 7,9 puntukoa da.

Hiru neurketa baino ez ditugu (2023, 2024 eta 2025 urteetakoak, hain zuzen ere), eta horrek ikuspegi nahiko mugatua ematen digu, baina osasun mentalarekiko gogobetetasunari emandako batez besteko puntuazioaren igoera bat hautematen da.

Mutilak neskek baino pixka bat gusturago daude beren osasun mentalarekin; 2025ean mutilek 8,1eko puntuazioa eman diote eta neskek 7,7koa.

IKASKETEKIKO ETA PRESTAKUNTZAREKIKO GOGOBETETZE-MAILA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren ikasketekiko eta prestakuntzarekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Euskadiko nerabeek 7,9ko gogobetetze-maila adierazten dute beren ikasketa eta prestakuntzarekiko.

Ikasketekiko gogobetetze-maila nahiko egonkorra da urteetan zehar, eta 2025eko puntuazioa azken hamabi urte hauetako batez bestekoa (7,7) baino pixka bat handiagoa da.

Nesken asebetetze-maila (8,4) mutilena (7,5) baino ia puntu bat altuagoa da.

AISIALDIAREKIKO GOGOBETETZE-MAILA

**Definizioa**

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren aisialdiarekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.


**Iruzkina**

Euskadiko nerabeen artean, batez beste, 10etik 7,5ekoa da aisialdiarekiko asebetetze-maila.

2025eko balio hori azken urteetako batez bestekoaren berdina da.

Sexuaren arabera ere ez dago alde nabarmenik. 15-17 urteko mutilek 7,6ko puntuazioa eman diote aisialdiarekiko duten gogobetetasunari, eta adin bereko neskek 7,4koa.

ITXURA FISIKOAREKIKO GOGOBETETZE-MAILA

**Definizioa**

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren itxura fisikoarekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.


**Iruzkina**

Euskadiko nerabeek hamarretik 7,4ko gogobetetze-maila adierazten dute beren itxura fisikoarekiko.

Bere irudiarekiko gogobetetasuna 2024an eta 2025ean zertxobait handiagoa da 2022an edo 2023an adierazitakoa baino, baina oraindik ez du pandemiaren aurretik zuen maila berreskuratu.

Neskek eta mutilek beren irudi fisikoarekiko sentitzen duten gogobetetze-maila oso antzekoa da: neskek 7,4ko puntuazioa ematen diote eta mutilek 7,3koa.

DUTEN DIRUAREKIKO GOGOBETETZE-MAILA

**Definizioa**

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek duten diruarekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.


**Iruzkina**

Euskadiko nerabeak nahiko pozik daude hilean duten diruarekin. 10etik 7,1 puntuko gogobetetze-maila adierazi dute 2025ean.

2025eko gogobetetze-maila 2023koa eta 2024koa baino handiagoa da, eta azken hamabi urteetako batez bestekoaren oso antzekoa.

Mutilak neskak baino pixka bat gusturago daude hilean duten diruarekin (7,3 eta 7,0 punturekin baloratu dute beren asebetetze-maila, hurrenez hurren).

HARREMAN SENTIMENTALEKIKO EDOTA SEXUALEKIKO GOGOBETETZE-MAILA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren harreman sentimentalekiko edota sexuarekiko sentitzen duten gogobetetze-mailaren batez besteko puntuazioa, 0tik 10erako eskalan.



Iruzkina

Euskadiko nerabeek beren harreman sentimental edota sexuarekin duten gogobetetasun-maila 5,1ekoa da 0-10 eskalan.

Beren harreman sentimental edota sexuarekiko gogobetetasuna ez da inoiz hain apala izan orain arte.

Mutilak neskek baino gusturago daude beren harreman sentimental edota sexuarekin. Izan ere, nesken artean asebetetze-maila ez da 5era iristen, 4,6koa baita; mutilek, berriz, 5,6 puntuko asebetetze-maila adierazi dute.

BIZITZAREN ALDERDIEN BALANTZEA 2025EAN

Gogobetetze-mailaren eta garrantziaren arteko alderik handiena

Harreman sentimentalak edota sexualak




Osasun
mentala

Dirua

-1,2

-1,1



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeek beren bizitzako hainbat alderdirekin sentitzen duten gogobetetzearen eta bizitzako alderdi horietako bakoitzari ematen dioten garrantziaren batez besteko puntuazioen arteko aldea, 0tik 10erako eskalan.




Iruzkina

Harreman sentimentalak eta sexu-harremanak dira sentitutako gogobetetasunaren eta emandako garrantziaren artean alderik handiena duen bizi-alderdia (1,0 puntu, batez beste).

Hala ere, sexuaren araberako aldeak aztertzean, emakume nerabeen artean, gogobetetasunaren eta garrantziaren arteko balantze negatiborik handiena osasun mentalean dago (-1,2 puntu), eta, ondoren, diruan (-1,0) eta harreman sentimentaletan edota sexualetan (-0,9). Gizon nerabeen kasuan, emandako garrantziarekin alderatuta, asebetetze-maila txikiena duen alderdia hilean duten dirua da (-1,1 puntu). Bigarren postuan, harreman sentimentalak edota sexualak daude (-1,0) eta hirugarren postuan aisialdia eta ikasketak (-0,8 puntuko aldea kasu bietan).

GURASOAK ZURE ADINEKOAK ZIRENEAN BAINO HOBETO BIZI AL ZARA?



Definizioa

Beren adinean gurasoek zuten egoerarekin alderatuta, egoera hobean daudela uste duten Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.



Iruzkina

2025ean, Euskadiko hamar nerabetik seik uste dute aita eta ama bere adinekoak zirenean baino hobeto bizi direla.


Hala ere, balorazioak ez dira egonkor mantendu denboran zehar. Krisi ekonomikoan, pertzepzioek nabarmen egin zuten okerrera, eta, ondoren, suspertu egin ziren. COVID-19aren pandemiak geroztik, gurasoak baino hobeto bizitzaren pertzepzioa beherakada jarraitua izaten ari da.

2025ean, neskek mutilek baino pertzepzio negatiboagoa dute; nesken % 55,9k uste dute beren gurasoak nerabeak zirenean baino hobeto daudela, mutilak baino ehuneko hamar puntu gutxiago (mutilen artean hori deritzotenak % 66,2 baitira).



II. BALIOAK ETA SINESMENAK

SEXU BEREKO PERTSONEN ARTEKO EZKONTZEI EMANDAKO SOSTENGUA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen artean, sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertzen direnen ehunekoa.



Iruzkina


Hamar nerabetik ia bederatzi sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertzen dira.

Ezkontza homosexualak babesten dituztenen portzentajea % 80tik gorakoa izan da 2008 eta 2024 arteko epealdi osoan.

Babesaren ehunekorik handienak 2016an eta 2020an izan ziren (% 90etik gorakoak).

2024an, neskek mutilek baino gehiago aldeztzen dute sexu bereko pertsonen arteko ezkontza (% 93,0 eta % 84,1, hurrenez hurren). Mutilen artean, % 5,7 aurka dago eta gainerakoek ez dute erantzun.

ABORTUARI EMANDAKO SOSTENGUA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen artean, askatasunez eta borondatez abortatzearen alde agertzen direnen ehunekoa.




Iruzkina

2024an, nerabeen % 80 baino gehiago abortu libre eta boluntarioaren alde agertzen dira.

Abortuaren aldeko jarrerak nabarmen egin zuen gora 2008 eta 2020 artean, orduan serieko portzentajerik altuenera iritsi baitzen (% 91,0) eta, ondoren, % 83an mantentzen da.

Mutilen eta nesken arteko aldeak nabarmenak dira honi buruz. Nesken kasuan, eurek pertsonalki egingo luketena alde batera utzita, % 90,9 abortu libre eta borondatezkoaren alde agertzen dira. Mutilen kasuan, abortuaren alde daudenen ehunekoa % 77,1era jaisten da (aldea, beraz, ehuneko hamar puntu baino gehiagokoa da); % 7,6 abortuaren kontra agertzen dira, eta gainerakoek ez dute erantzuten.

EUTANASIARI EMANDAKO SOSTENGUA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen artean, eutanasiaren alde agertzen direnen ehunekoa.




Iruzkina

2020tik, nerabeen % 80 baino gehiago eutanasiaren alde daude. Babes handiago horrek zerikusia izan dezake 2021eko martxoan Eutanasiaren Legea onartu aurretik eta ondoren gaiari buruzko eztabaida sozial handiagoarekin.

Beste behin ere, eutanasiaren aldeko jarrera handiagoa dute neskek mutilek baino (% 90,7k eta % 82,3k, hurrenez hurren).

PERTSONA ATZERRITAR GEHIEGI IZATEAREN PERTZEPZIOA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen artean, Euskadin atzerritar gehiegi dagoela uste dutenen ehunekoa.




Iruzkina

Euskadin dagoen atzerritar kopuruaren pertzepzioa aldatu egiten da uneko testuinguruaren arabera. Ehunekorik altuena 2012an izan zen, krisi ekonomiko betean eta langabezia-tasa altuekin. Aldiz, portzentajerik txikiena 2020ari dagokio, COVID-19aren pandemiak mugikortasuna murriztu zuenean.

Edonola ere, Euskadiko lau nerabetik batek uste du atzerritar gehiegi bizi direla gure autonomia-erkidegoan.

Kasu honetan, mutilen eta nesken arteko aldeak txikiak dira, baina lehenengok ehuneko altuagoak dituzte: mutilen % 30,3k eta nesken % 26,6k pentsatzen dute, 2024an, Euskadin atzerritar gehiegi dagoela.

LAN-KONTRATUA DUTEN IMMIGRANTEEI BAKARRIK ERRAZTU SARRERA



Definizioa

Sarrera lan-kontratua duten langile etorkinei soilik erraztu beharko litzaiekeela uste duten Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.




Iruzkina

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ia erdiek 2024an pentsatzen dute lan-kontratua duten etorkinei soilik erraztu beharko litzaiekeela sarrera.

Migrazio-politika egokienari buruzko iritziak nabarmen aldatu dira urteotan. Sarrera lan-kontratua dutenei soilik erraztuko lieketenen ehunekoa % 62,8 izan zen 2008an, eta % 27,6, aldiz, 2020an, COVID-19ak mugatutako urtean.

Mutilek neskek baino jarrera zorrotzagoak hartzen dituzte immigrazioari dagokionez, baina aldeak ez dira oso nabarmenak. Mutilen % 50,0k eta nesken % 46,3k lan-kontratua zutenei bakarrik utziko liekete sartzen.

KLIMA-ALDAKETA: EZ DA GIZA EKINTZAREN ONDORIO



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen artean, klima-aldaketa deritzoguna noizean behin gertatzen den eta giza ekintzaren ondorio ez den natura-aldaketa bat delako ideiarekin ados edo desados daudenen ehunekoa.




Iruzkina

Euskadiko hamar nerabetik ia zortzi (% 78,8) ez daude ados klima-aldaketa gizakiaren ekintzekin zerikusirik ez duen aldaketa natural ziklikoa dela dioen ideiarekin. Nerabeen % 14,1 baino ez dago iritzi horrekin ados.

Nahiz eta gutxiengoa izan, klima-aldaketa noizbehinka gertatzen den natura-aldaketa dela eta giza ekintzarekin zerikusirik ez duela uste dutenen ehunekoak desberdinak dira nesken eta mutilen artean. Klima-aldaketa giza ekintzaren ondorio ez dela uste duten 15-17 urteko mutilen ehunekoa (% 18,9) adin horretako neskena (% 9,1) baino bi aldiz handiagoa da.

KLIMA-ALDAKETA: NEURRI ZORROTZAGOAK ESKATZEA

**Definizioa**


Klima-aldaketa geldiarazteko neurri zorrotzagoak hartu behar direla dioen ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.

**Iruzkina**

Euskadiko hamar nerabetik bederatzi klima-aldaketa geldiarazteko neurri zorrotzagoak ezartzearen aldekoak dira (% 89,9).

Neurri zorrotzagoak hartzearen alde dauden 15-17 urteko nesken ehunekoa adin-tarte horretako mutilena baino handixeagoa da (% 92,7 eta % 87,2, hurrenez hurren).

ERLIJIO-GAIETAN NORBERE BURUA EZ-SINESTUN GISA DEFINITZEA



Definizioa

Erljio-gaietan bere burua fedegabe, ateo, agnostiko edo axolagabetzat jotzen duten Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.



Iruzkina

Gaur egun, Euskadiko nerabeen erdiak baino gehiagok erlijio-gaietan ez-sinestun gisa definitzen du bere burua (% 58,7). Ehunekorik altuena 2020an izan zen, COVID-19aren pandemian.


Aldiz, beren burua pertsona katolikotzat (praktikanteak edo ez-praktikanteak) jotzen duten nerabeen proportzioak 2024an erregistratu du seriearen baliorik txikiena: % 19,1. Bestalde, 2024an, beste erlijiotakoak direla dioten nerabeen ehunekoa % 5,3koa da.

Ez dago alde nabarmenik 15-17 urteko neska-mutilek erlijiotik kanpo duten jarreran: mutilen % 59,3k eta nesken % 58,1ek beren burua ez-sinestun gisa definitzen dute.



III. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA

AUZOTIK GAUEZ BAKARRIK IBILTZEKO BELDURRA



Definizioa

Beren herrian edo auzoan gauz bakarrik ibiltzeari beldurra dioten Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.




Iruzkina

Gauz kalean bakarrik ibiltzeko beldurra nabarmen zabaldu da Euskadiko nerabeen artean. 2024an ia erdiek diote beldurra dutela (% 47,1).

Mutilen eta nesken arteko aldeak oso nabarmenak dira: 2024an, hiru neskatik bik (% 66,4) diote beldurra diotela gauz kalean bakarrik ibiltzeari, ingurune ezagun batean bada ere; mutilen kasuan, % 29,1ek (ia hirutik batek).

GENERO-INDARKERIA ASMAKIZUN IDEOLOGIKOA AL DA?



Definizioa

Genero-indarkeriarik ez dagoela eta asmakizun ideologikoa dela dioen ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.




Iruzkina

Euskadiko hamar nerabetik bederatzik baztertu egiten dute genero-indarkeria asmakizun ideologikoa delako ideia (% 89,0). Hala ere, % 8,9k berea egiten du ideia hori.

15 eta 17 urte bitarteko mutilen artean, % 14,6k uste du genero-indarkeriarik ez dagoela eta asmakizun ideologikoa dela. Adin horretako nesken artean, % 2,9k baino ez du iritzi hori. Nolanahi ere, mutil eta neska nerabe gehienek onartzen dute genero-indarkeria badagoela eta gizarte-arazoa dela.

BERDINTASUNA SUSTATZEAK ORAIN GIZONAK BAZTERTZEA EKARRI AL DU?



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen artean, emakumeen berdintasuna sustatzeari dagokionez, urrutiegi heldu dela eta orain gizonak diskriminatzen ari direla dioen ideiarekin ados edo desados dauden ehunekoa.




Iruzkina

Euskadiko nerabeen laurden bat baino gehixeago (% 28,7) bat dator emakumeen berdintasuna sustatzeari dagokionez urrutiegi joan dela eta orain gizonak diskriminatzen direla dioen ideiarekin.

Ehuneko orokorra hori bada ere, 15-17 urteko neska-mutilen iritzien artean alde handiak daude. Mutilen artean, % 42,0k uste du urrutiegi iritsi dela eta orain gizonak diskriminatu egiten direla; nesken artean hori deritzotenen ehunekoa askoz txikiagoa da, % 14,6koa.

DISKRIMINAZIO POSITIBOKO NEURRI GEHIAGO ESKATZEA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen artean, emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekintza gehiago martxan jarri behar direlako ideiarekin ados edo desados daudenen ehunekoa.



Iruzkina

Euskadiko lau nerabetik hiru (% 76,1) emakumeen aldeko diskriminazio positiboko ekintza gehiago martxan jartzearen aldekoak dira.

Planteamendu horrekin ados daudenen ehunekoa gehiengoa da bai nesken artean bai mutilen artean, baina batzuen eta besteen arteko aldeak nabarmenak dira. 15 eta 17 urte bitarteko nesken artean, % 84,0k uste du emakumeen aldeko diskriminazio positiboko neurri gehiago jarri behar direla martxan; adin horretako mutilen artean, ehunekoa hamabost puntu baxuagoa da (% 68,5).



**IV. PARTE-HARTZE
SOZIALA**

BOLUNTARIO-LANAK BETETZEA



Definizioa

Boluntario-lanak egiten dituzten Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.




Iruzkina

Galdetuak izateko unean boluntario-lanak egiten dituztela dioten nerabeen ehunekoak gorakada nabarmena izan du 2012tik 2025era.

Boluntario-lanak egiten dituzten nesken ehunekoa (% 17,7) handiagoa da beren adineko mutilena baino (% 11,2).

POLITIKAREKIKO INTERESA

**Definizioa**


Politikan interes handia edo nahikoa duten Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.

**Iruzkina**

Gai politikoekiko interesak goranzko joera du etengabe Euskadiko nerabeen artean. 2024an, ia erdiek diote interes handia edo nahikoa dutela gai horietan, 2008-2024 aldiko batez bestekoaren oso gaineratik.

Mutilek politikarekiko interes handixeagoa dute neskek baino (% 50,9 eta % 46,3, hurrenez hurren, 2024an).

DEMOKRAZIA GOBERNATZEKO MODURIK ONENA AL DA?

**Definizioa**

Demokrazia gobernu-modu onena delako ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.


**Iruzkina**

Euskadiko lau nerabetik hiruk uste dute demokrazia dela gobernatzeko modurik onena (% 75,9).

Mutilek neskek baino adostasun-maila handixeagoa dute ideia horrekin (% 79,7 eta % 72,0, hurrenez hurren).

Bestalde, nesken artean erantzun ez dutenen ehunekoa handiagoa da mutilen artean baino.

HERRITARREK PARTE HARTZEKO BIDE GEHIAGO ESKATZEA



Definizioa

Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen artean, herritarrek erabaki publikoetan modu eraginkorragoan parte hartzeko mekanismoak ezarri behar direlako ideiarekin ados edo desados daudenen ehunekoa.



Iruzkina


Euskadiko lau nerabetik hiru (% 76,9) herritarrek erabaki publikoetan modu eraginkorragoan parte hartzeko mekanismoak (adibidez, erreferendum lotesleak, etab.) ezartzearen aldekoak dira.

Planteamendu horrekin ados daude neska eta mutil gehienak, nahiz eta mutilen ehunekoa handiagoa izan (% 82,3; neskena, berriz, % 71,1). Horrek ez du esan nahi neskek desados daudenik (desadostasun-ehunekoak antzekoak dira: % 8,5 mutilen artean eta % 7,6 nesken artean), baizik eta galdera horri erantzun ez dioten 15-17 urteko nesken ehunekoa dezente handiagoa dela mutilen artean erregistratutakoa baino (% 21,3 eta % 9,2, hurrenez hurren).



V. SARE SOZIALAK

SARE SOZIALEK LAGUNAK EGITEA ERRAZTEN AL DUTE?



Definizioa

Sare sozialei esker lagunak egitea errazagoa delako ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.




Iruzkina

Euskadiko nerabeen erdiek baino gehixeagok uste dute sare sozialek lagunak egitea errazten dutela (% 58,2).

Hala ere, hamarretik lau (% 40,8) ez daude ados ideia horrekin.

Mutilek neskek baino gehiago uste dute sare sozialekin errazagoa dela lagunak egitea.

SARE SOZIALEK AZALEKO HARREMANAK AL DAKARTZATE?

**Definizioa**


Internetek eta sare sozialak gizarte-harremanak azalekoagoak izatea eragin dutela dioen ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.

**Iruzkina**

Euskadiko hamar nerabetik ia zortzik uste dute Internetek eta sare sozialak harreman sozialak azalekoagoak izatea eragin dutela (% 78,9).

Neskek mutilek baino neurri handiagoan partekatzen dute ideia hori (aldea ehuneko hamar puntutik gorakoa da).

SARE SOZIALEK GEHIAGO ISOLATZEN AL ZAITUZTE?

**Definizioa**


Internet eta sare sozialak erabiltzeak gehiago isolatzen zaituela dioen ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.

**Iruzkina**

Euskadiko hamar nerabetik zazpik uste dute Internet eta sare sozialak erabiltzeak gehiago isolatzen zaituela (% 70,8).

Kasu honetan ez da iritzi desberdintasunik antzeman nesken eta mutilen artean (% 71,1 eta % 70,1 ados daude, hurrenez hurren).

SARE SOZIALETAN LAGUNTZA EMOZIONALA AURKITZEA ERRAZA AL DA?

**Definizioa**


Sare sozialetan edozein arazoren aurrean laguntza emozionala aurkitzea erraza delako ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.

**Iruzkina**

Euskadiko hiru nerabetik bi ez daude ados sare sozialetan edozein arazoren aurrean babes emozionala aurkitzea erraza delako ideiarekin: % 65,1 ez dago ados eta % 33,8 bakarrik dago ados.

Gizarte-sareetan laguntza emozionala aurkitzea erraza dela uste dutenen ehunekoa pixka bat handiagoa da mutilen artean (% 36,4) nesken artean baino (% 31,4). Edonola ere, bai mutilen eta bai nesken artean gehiengoak ez dago ados planteamendu horrekin.

SARE SOZIALAK ERABILTZEAK OSASUN MENTALARI ERAGITEN AL DIO?

**Definizioa**


Sare sozialen erabilerak osasun mentalari negatiboki eragiten diolako ideiarekin ados dauden edo ez dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoak.

**Iruzkina**

Euskadiko lau nerabetik hiruk uste dute sare sozialen erabilerak eragin negatiboa duela osasun mentalean (% 76,6).

Idea horrekin ados dauden 15 eta 17 urte bitarteko mutilen eta nesken ehunekoak ia berdinak dira (% 76,2 eta % 76,8, hurrenez hurren).

SARE SOZIALAK ERABILTZEAK ERRENDIMENDU AKADEMIKOARI ERAGITEN AL DIO?



Definizioa

Sare sozialen erabilerak ikasketetako edo laneko errendimenduan negatiboki eragiten duela dioen ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.




Iruzkina

Euskadiko hamar nerabetik zortzik uste dute gizarte-sareak erabiltzeak eragin negatiboa duela ikasketetako edo laneko errendimenduan (% 81,5).

Mutilek neskek baino gehiago uste dute sare sozialen erabilerak eragin negatiboa duela eskola- eta lan-errendimenduan; 15 eta 17 urte bitarteko mutilen % 84,9 ados dago ideia horrekin, eta nesken kasuan % 77,6.

SARE SOZIALEN ARRISKUAK PUZTU EGITEN AL DIRA?



Definizioa

Sare sozialek izan ditzaketen arriskuei buruz asko exageratzen delako ideiarekin ados edo desados dauden Euskadiko 15 eta 17 urte bitarteko nerabeen ehunekoa.



Iruzkina

Euskadiko hamar nerabetik hiruk baino ez dute uste sare sozialek eragin ditzaketen arriskuak asko puztu egiten dela (% 30,3). Gehienek (% 68,5) uste dute gai honi buruz ez dela exageratzen.

Gizarte-sareak erabiltzeak dakartzan arriskuez exageratzen delako ideia zabalduago dago mutilen artean (% 35,3) nesken artean baino (% 24,1). Edonola ere, neska-mutil gehienek pentsatzen dute arriskuak egon badaudela, eta ez dela haiei buruzko ikuspegi oso desitxuratua ematen ari.

